


IRAILA
2024



LEMOIZ HERRI GARAIPEN BAT NUKLEARIZAZIOAREN AURKA

Iñaki Petxarroman

Lemoizko zentral nuklearraren proiektua bertan behera utzi zutenetik berrogei urte pasa diren honetan, ezin aska-tuko sinbiosi bat da oraindik haren aurkako mugimendua. Politikariek eta agintariek, oro har, ETari egotzi izan diote Lemoizko zentrala geratu izanaren meritua. Garbi dago, ordea, ez dela horren kontu sinplea. Euskal Herrian urte haietan izandako mobilizazio iraunkor eta sendorik gabe, zaila da irudikatzea ia bukatuta zegoen proiektu bat bertan behera geratzea. Iñaki Petxarromanek garai hartan mugimendu antinuklearrean aritutakoak eta bereziki Lemoizko zentral nuklearraren gatazkan jardun zirenak elkarriketatu ditu, herri garaipen handitzat hartzen den borroka haren kontaketa gaurkotzeko.

SAIAKERA

ISBN: **978-84-10246-18-8**
ORRIALDEAK: **128**
FORMATUA: **11 x 16**
PREZIOA: **XX,XX €**

BORROKA ANTINUKLEARRA

LEMOIZ

EKOLOGISMOA

- Lemoizko zentral nuklearraren proiektua bertan behera utzi zutenetik 40 urte igaro dira; urteurrenaren harira, liburuxka labur eta mamitsu hau argitaratu nahi izan dugu gatazka hura ezagutu ez zuten belaunaldi gazteek ere jakin dezaten zer gertatu zen.
- Garaian Lemoizko borrokan parte hartu zuten kideak elkarriketatu ditu autoreak, eta haien lekukotzak tartekatzen dira kontakizunean.
- Iñaki Petxarroman kazetariak lan handia egin du ingurumenaren eta ekologiaren arloan, eta horregatik, besteak beste, Ingurumen Kazetaritzako Saria jaso zuen 2023an.



IÑAKI PETXARROMAN GUTIERREZ

(Lasarte-Oria, Gipuzkoa, 1973)
Kazetari eta idazlea da. Euskal Herriko Unibertsitatean kazetaritza ikasketak egin zituen, eta *Egin*, *Euskaldunon Egunkaria* eta *Berria* kazetetan egin du lan. Hainbat liburu argitaratu ditu, bai narratiba eta bai saiakera, horietako asko ingurumenarekin eta ekologiarekin lotuta, eta kazetari lanean ere horretan trebatu da. Hori dela eta, Euskal Kazetarien Elkartek eta Kazetarien Euskal Elkargoak ematen dituzten Ingurumen Kazetaritzako Saria jaso zuen 2023an. Gaur egun eszedentzian dago, Hernaniko Udalean lanean.

EGILEAREN BESTE LIBURU BATZUK TXALAPARTAN:



txalaparta

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus
www.txalaparta.eus